



MATERIALAK AMATU

Argitalpen hau Uholdeak 2023 "Materiales maternas/Materialak amatu" proiektuaren harira argitaratu da. Proiektu hau Innova Cultural programaren, Nafarroako Kutxa Fundazioaren, La Caixa Fundazioaren, Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren, Agoizko Kultur Etxearen, Iortia Kultur Gunearen, Tafallako Kulturgunearen, Nafarroako Filmotekaren eta Nafarroako Liburutegi Publikoen lankidetzaren emaitza da.

Esta publicación ha sido editada con motivo del proyecto Uholdeak 2023 "Materiales maternas/Materialak amatu" fruto de la colaboración del programa Innova Cultural, Fundación Caja Navarra, Fundación "la Caixa", Centro de Arte Contemporáneo de Huarte, Casa de Cultura de Aoiz, Centro Cultural Iortia, Centro Cultural de Tafalla, Filmoteca de Navarra y Bibliotecas Públicas de Navarra.

Antolakuntza eta koordinazioa | Organización y coordinación: Agoizko Kultur Etxea-Casa de Cultura de Aoiz, Iortia Kultur Gunea-Centro Cultural Iortia, Centro Cultural de Tafalla Kulturgunea, Uharteko Arte Garaikideko Zentroa-Centro de Arte Contemporáneo de Huarte.

Kuradorea | Curadora: Natalia Isla Sarratea.

Uholdeak proiektuaren egilea Uharteko Arte Garaikideko Zentroa | Uholdeak es un proyecto de Centro de Arte Contemporáneo de Huarte.

Laguntza | Colaboración: Fundación Caja Navarra, Fundación "la Caixa", Nafarroako Filmoteka- Filmoteca de Navarra, Nafarroako Liburutegi Publikoak-Bibliotecas Públicas de Navarra.

Uharteko Arte Garaikideko Zentrok lantaldea | Equipo del Centro de Arte Contemporáneo de Huarte: Oskia Ugarte, Iñigo Zubikoa, Iñigo Gómez, Idoia Pastor, Irantzu Marquet.

Komunikazioa | Comunicación: Enara Insausti.

Hezkuntza | Educación: Jyotima Barrenetxea.

Garraioa eta muntaia | Transporte y montaje: EduGARTE, David Mutiloa.

Dokumentazioa, argazkiak eta bideoa Dokumentazioa, argazkiak eta bideoa | Documentación, fotografía y vídeo: Mannaig Norel.

Diseiua | Diseño: Marisa Mantxola.

Inprenta | Imprenta: Gráficas Alzate.

Testuak | Textos: Amaia Gracia Azqueta, Angela Moreno, Beruta (Berta Osés), Marisa Mantxola, Natalia Isla Sarratea, Oihane Mcguinness Armendáriz, Txaro Fontalba, Zarys Falcon.

Irudiak | Imágenes: Amaia Gracia Azqueta, Angela Moreno, Beruta (Berta Osés), Mannaig Norel, Oihane Mcguinness Armendáriz, Txaro Fontalba, Zarys Falcon.

Uharteko Arte Garaikideko Zentroa Nafarroako Gobernuak finantziatutako erakundea da | El Centro de Arte Contemporáneo de Huarte es una entidad financiada por Gobierno de Navarra.

ISBN: 978-84-09-47743-2 LG | DL: NA 129-2023





MATER

Zeri esaten diogu amatasun, gaur egun?

Amatasuna –kontzepzio tradizionalen– ama eta seme edo alaba diadaren ikonografiarekin identifikatu ohi da; gai hori zabal berrikusi da Mendebaldeko artearen historian, eta, batez ere, kristau-artean. Hala, *a priori*, zaila da amatasun-harremanari esleitzen zaizkion ezaugarri batzuen garrantzia nabarmentzen duen ikusizko erlijio-errepertorioetik aldentzea, ariketa moral eta emakumeak ama den aldetik duen rolaeren egiaztapen gisa.

Adrienne Rich saio-idazleak eta aktibistak, gaia oinarri duen 1976ko testu batean, honako hau zehazten du: ama, emakume den aldetik, onuragarri, sakratu, puru, asexual eta nutriziotzat jotzen da; “semerik edo alabarik ez duen emakumea”, aldiz, amaren irudiaren polarizazio bat da, amatasunaren eta heterosexualitatearen instituziorako soilik dena erabilgarri². Baieztapen horrek egiaztatzen du haurdunaldiaren, erditzearen eta beste gizaki baten bizitza eustearen aurrean tentsio soziala dagoela. Richek bere amatasun-esperientziak esandakoa –“emozioaren eta tradizioaren artean kargatutako forma, non neure burua Amaren papera betetzera behartuta ikusi

bainuen”³ ideia hura– “ama ona”ren xedearen eta zaintzailearen eginkizuna betetzen duenak bizitako pertzepzio pertsonalaren eta afektiboaren arteko konfrontazioaren zeinu da.

Richen idazketa XX. mendeko pentsamendu feministan murgiltzen da; pentsamendu horrek emakumearen errealizazioaren promesa iradokitzen zuten arauen kritika trinkoa egin zuen, ezkontzan eta amatasunean ainguratuta baitzeuden. Hura desegitearen ondorioz, gaur egun amatasunaz ideal gisa hitz egitea oso konplexua eta eztabaidagarria da.

Literaturak emakumeen zenbait narratiba batu ditu; haietan, anibalentzia emozionala erakusten dute, eta anibalentzia horrek kontraesanak eta atsekabesentsazioa ditu bereizgarri. Neke fisikoak, buruko tentsioak, bakardadeak eta norberarentzako denborarik ezak eragindako ondoeza emakume-taldeetan hitz bidez adierazten hasia da; eta haien historia partikularren artean antzeko kasuak ezagutzen hasiak dira, Jane Lazarrek “Nudo materno”⁴ esan bezala. Hala, ondoeza agertzen joan

2 Rich, Adrienne. *Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución* (Madril: Traficantes de sueños, 2019).

3 *Ibid.*, 68.

4 Lazarre, Jane. “Solo somos madres”, en *Maternidad y creación*, 83-108.

da, partekatua eta kolektiboa, eta, pixkanaka, amatasuna ideal baloriko eta estetiko batetik aldentzen joan da, eta bizi-esperientzia bakoitzaren zenbait adierazpen ekarri ditu, ez soilik gorputz organiko ugaltzaileari lotuak, baita emakume bakoitzaren eta haren testuinguruaren prozesu psikoafektiboari lotuak ere.

Aurrekoagatik, zehazki, jarri da zalantzan hizkuntza, izendatzeko modua, eta eman da, ondorioz, “amatasun” terminoaren plurala –“amatasunak”– erabiltzeko parada, bai eta Latinoamerikako antropologo Rosalía Camachok (1997)⁵ eta Marta Lamasek (1987)⁶ sortutako *maternaje* eta *maternazgo* neologismoak ere; haiek seme-alabak hazteko eta odolkideak ez diren beste gizaki batzuk zaintzeko erantzukizun gisa identifikatzen dituzte, bai eta beste batzuk zaintzeko jarduerekin ere, amatasunaren luzapen gisa.

Marcela Lagarde antropologoak, Latinoamerikako feminismoaren ordezkariak, honako hau nabarmentzen du:

“Hala, emakumeek zaintzen dituzte besteak (gizonak, familiak, seme-alabak, senitartekoak, erkidegoak,

eskola-umeak, pazienteak, gaixoak eta behar bereziak dituztenak, hautesleak, ingurumena eta zenbait subjektu politiko eta haien kausak). Haien garapena, bilakaera, ongizatea, bizitza eta heriotza zaintzen dituzte (...). Zaintzaren botereek –*maternazgo* delakotzat hartuta, oro har, amatasunari lotuta daudelako– ez dute balio emakumeentzat, haien banako garapen modernorako, eta ezin dira, bestalde, familia- eta etxe-eremutik botere politiko instituzionalaren eremura eraman”⁷ (2003, 157)

Bestalde, Andrea O’Reilly Ipar Amerikako akademikoak *motherhood* eta *mothering*⁸ terminoak bereizi ditu, eta, hala, amatasunaren eredu soziala –krisialdian– eta amatzeko edo norbait zaintzeko jarrera bera.

Hori bai, gaiaren inguruko hausnarketa eremu horretara eramanda, euskarak testuinguru horretan duen aberastasuna nabarmendu daiteke; izan ere, *amatu*⁹ terminoak –erakusketaren izenbururako aukeratu da– adierazten du ama egon-izatea edo ama egiten ari izatea (bestetik, “amar” gaztelaniazko aditzarekin lotzen da).

5 Camacho, Rosalía. “La maternidad como institución del patriarcado: Representaciones y manifestaciones en obreras del sector textil” (Maisutza-tesia In Estudios de la mujer, Universidad de Costa Rica – Universidad Nacional, 1997).

6 Lamas, Marta. 1986. “Maternidad y política”, In Jornadas feministas Feminismo y sectores populares en América Latina, (Mexiko: Ediciones EMAS, 1986).

7 Lagarde, Marcela. “Mujeres cuidadoras entre la obligación y la satisfacción” In Congreso Internacional Sare 2003: Cuidar cuesta: oostes y beneficios del cuidado. (Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2004), 157.

8 O’Reilly, Andrea. From Motherhood to Mothering: The Legacy of Adrienne Rich’s “Of Woman Born” (New York: SUNY, 2004).

9 *Amatu* terminoa aztertu dute, oraintsu, esanahiari dagokionez, Maite López Las Heras-en liburu homonimoaren aurkezpenean, Durangoko Azokaren 58. edizioan, 2022an. Ikus: <https://durangokoazoka.eus/eu/egitaraua/bideo/524>

Gaur egungo
amatasunaren zer
alderdi aitor ditzakegu
haren dimentsio
estetikoan?



Amatasunaren jardunbideak¹⁰ ahalmen bitalista eta iraultzailea ematen du, amatasunari dagokionez, haren ezaugarriak beste subjektu batzuetara zabaltzen eta hedatzen baititu, seme-alaben loturaren eskusibotasunik gabe. Eta, era berean, interesgarria da erakusketa kolektibo hau eta haren bitartekaritza-programa eratzen duten artisten oraintsuko ekoizpenetara hurbiltzea, ikuspegi afektibotik.

Bira afektiboak gorputzetik ulermen estetiko ahalbidetzen du; hartara, zentraltasuna baztertzen du diskurtsoaren osagaian, eta aukera ematen du amatiarra denaren gatazkei heltzeko, materiaren inguruko gaietatik, *matter matters*.

Hala, erakusketa ibiltariko piezak, hala nola zinema-zikloaren programazioa eta bitartekaritza bidezko tailerretako irakurketen berrikusketa, "amatasun-material"tzat hartzen dira; izan ere, amatiarra denari buruzko gaiak eragiten dituen hainbat arazori buruzko hausnarketak eragiten dituzten bitartekoak sortzen dituzte.

Ikerketa kuratorialean zehar, zenbait ekintza eta keinu plastiko antzeman nituen, emakumezko artisten piezetan amatasunaren jardunbidearen alderdiak zehazten dituztenak; haiek erakusketaren ibilbidearekin bat datorren eta hurrengo lerrootan transmititzen saiatzen naizen kontakizuna eratzten dute.



○
ANGELA MORENO
Titulurik gabe

¹⁰ *Maternal practice* terminoa Sara Ruddick-ek sortu zuen, "Maternal thinking"-en (1980), biologikoez bestelako zaintza-eginkizunez (maternazgo) hitz egiteko.



geldiaraztea

○
AMAIA GRACIA AZQUETA
 Anudar

Madre de la otredad, cómeme pieza, Txaro Fontalbaren *Los lechos de Medea* seriekoa, haren lanaren aurreko fase batetik berreskuratutako lan bat da, baina emakumezkoen gorputzaren kontu bereizle batzuen eragilea da. Sylvia Plath idazlearen esaldi batetik abiatuta, artistak "ama txarra" ren irudiaren inguruko hausnarketa bat planteatzen du, eta hark hankaz gora jartzen du ideal leundu anakronikoa.

Piezaren izenbururako balio duten hitzez eginiko somier baten gainean, haragi gordinaren irudi inprimatua duen koltxoi bat bere buruaren gainean tolestean da eta, hala, bere pisuari eusten dion oreka ezegonkorreko angelu bat sortzen du. Artistaren hitzetan, "haragia gizakiaren eta animaliaaren arteko baterako gune hori da. (...) Haragia gorputzaren ziurtasunaren muga eta zentzugabekeria gisa"¹¹.

Amaren gorputza, beraz, tentsioan dagoen eremu bat da. Gainezka ez egiteko ahaleginetan, bere buruari eusten dio –baina badirudi sekula ez dela nahikoa–, gizarte patriarkalaren arauetara egokitzeko bidea bilatu ondoren. Victoria Sauk dio amaren maitasuna, femeninoaren irudikapen gisa, paradoxikoa dela; izan ere, gutxietsi egiten du, berezkoa dela baitio, baina, aldi berean, exijentzia bilakatzen da emakumeentzat; "ama txar"tzat joko dira, espero diren maitasun-moduak erakusten ez badituzte, eta barregarri utziko dituzte, afektu gehiegi erakusten dela iritziz gero, aiten asmoen aldean.¹²

Era berean, *Útero* (2005) pieza – artistak animalia-azal bat gehitu dio hari eta, hala, instalazioa eguneratu du– krisialdian dagoen sinbolo gisa aurkezten da; izan ere, organo horren agentzia politikoa –XX. mende bueltan emakumeen

¹¹ Fontalba, Txaro. In "El objeto tartamudo", In Zambucho Ediciones, ikus: http://www.zambucho.com/exposiciones/expo_texTxaro.htm

¹² Sau, Victoria. *El vacío de la maternidad*. 2. ed. (Bartzelona: Icaria, 2004), 103.

eustea

histeriaren eragile gisa interpretatu zen– emakumea izatea zer den eta haren ezaugarrien artean ugalketarena ote dagoen ardatz dituen eztabaidaren parte da gaur egun.

Hasierako puntu honetatik, amaten duen gorputzaren alderdi batzuetara zabaltzen da. **Amaia Gracia Azquetaren** *Todo son cosas para usar con el cuerpo* serieko *Vestir* eta *Anudar* lanetan ikus daiteke sozialki bete behar diren eginkizunetatik abiatuta sortzen den tensioa, beste gizaki baten kargu hartzean. Hartan, eskulturazko kontzepzio batetik lan egiteko ideia –zenbait teknikarekin, besteak beste, trikotinekin eginiko arrosa tonuko ehun leuna edo haien esnea ateratzeko tresnen gainerako gomen txirikorda– kontrastean dago kate metaliko zintzilikariekin, baina eusteko keinu bera dute. Honako hau galde diezaiokegu geure buruari: zerk/nork eusten dio zeri/nori? Kateatze horietan, zerbait itogarria dago, eta haren pisuak, gogortasunak, tentsioak eta formatuak azpikoz gora jartzen dituzte materialen beren erabilera-ezaugarriak. Amaren gorputzaren kalteberatasuna eta kontraesan emozionala presente daude instalazio honetan.

Horrekin bat etorritz, **Angela Morenoren** piezak, *Mujeres sobre blanco* seriekoak, ia giza eskala batera dakar emakume baten gorputz osoko erretratua; haren



○
TXARO FONTALBA
Al aire de su vuelo

biluztasuna haren aurpegiaren eta begiradaren zati bateko ezkutaketarekin kontrastean dago. Aldi berean, irudia hura estaltzen duten zuntz naturalen bidez kamuflatzen da; hala, haren presentzia iluntzen dute. Irudiak emakume baten tonu introspektiboa sortzen du, eta hark piezari aurrez aurre begiratzen diotenak interpelatzen ditu. Pertsona bakoitzaren psikearen zokoren batean dagoen ahultasun-gune hori ezagutzera deitzen du eta, hala, subjektu emozional gisa eratzten gaituzten itzalak agertzera. Are gehiago, irudi biluzi eta, aldi berean, estali honen ahalmenak subjektu politiko gisa amaten duen emakumearen gorputzari buruzko eztabaida bat ireki lezake. Nork zaintzen du bera?

Era berean, posible izan da artisten pieza batzuen arteko dirdirak konektatzea. Tolesak intimitaterako erreserbatutako zenbait zonaren forma eta metaforatzat hartuta, azala nork bere burua ezagutzen saiatzeko gainazal gisa dihardu, eta hala egiaztatzen da *Beruta* (Berta Osés) *Duelos* serieko *Nea Nata* atsekabeen piezetan eta portzelanazko *Pliegues* serieko ariketa plastikoetan, bai eta Amaia Gracia Azquetaren *Media pliegue* eskulturaren ere. Ezaugarri plastikoak, besteak beste, epidermisaren testura eta kolorea, beharbada kanpoko mundu baten babes gisa, ikerketa-espazio pertsonal gisa pentsatu dira, gorputzaren materia ulertzeko saiakera gisa.



○
AMAIA GRACIA AZQUETA
 Media pliegue

Ikuskerak gorputzaren atala du ardatz, tolestaren eta zabaltzearen ekintzan; hala proposatzen du Txaro Fontalbak *Al aire de su vuelon*, eta igotzen ari diren Andre Mariaren irudien esku, beso eta soinekoren tolesturen errepikapenaren hainbat eta hainbat aukera konbinatzen ditu. Eraketa-, esperimentazio- eta eraldaketa-joko bat dago han, eta eraldaketa horiek infinituak dira, egon daitezkeen konbinazio bestekoak. Aukeratutako euskarria "paper pintatu" ena da; nahiz eta lehen irakurraldian etxeko espazio bati egokitu, paperek eusteko eta erortzeko moduari behatzeko aukera ematen du, haien pisuaren eta malgutasunaren ezaugarrietatik abiatuta; hala, organikoari buruzko okerdurak sortzen dira, eta okerdura horiek haien euskarri den metal hotzaren dirdirarekin kontrastatzen dute.

○
BERUTA (BERTA OSÉS)
 Nea Nata



tolestea

hustea

⊙
BERUTA (BERTA OSÉS)
 (Des)equilibrada



Ziurrenik, amatasunei eginiko zuzeneko aipamena irudi makurrak dira, bai bularrenak, bai aldakenak, bai amaren sabelarena. Hala ere, amaten duten gorputzen alderdi psikoafektibo samarrei egiten zaien erreferentziarekin jarraitzeko, aurretik esan denez, posible da esferak beren baitan biltzeko, isolatzeko edo babesteko eremu gisa lotzea. **Amaita Gracia Azquetaren *Sólido/Líquido*** lanean, hiru argazki ageri dira, eta, haietan, haurrentzako ariketa plastikoak eta ludikoak erregistratzen dira, kola zuriarekin; bigarren azal gisa dihardu kolak, berezkoa estaltzeko balio duena. Aldi berean, **Angela Moreno, *Ten cuidado cariño, que no te hagan daño*** lanean, materialen erdi-gardentasunarekin bat dator, baina paperaren erabileratik abiatuta; arrosa-landarearen arantzen esfera estalia sortzen du, eta, hala, beste geruza sinboliko bat gehitzen zaio estaltzeko ideiarri: babestearena.

Era berean, **Berutak (Berta Osés)** esfera bat garatu du, eta haren gardentasunak argiarekin indartzen dira, eta, geruzen artean, organtza-oihal fin baten geruzen artean, aukera ematen dute nahikoa hurbiltzeko, brodatutako mezu bat identifikatzea lortzeko: *Estoy aquí*. Gainera, beste bi esfera, **X**, ere

badaude, eta haiei zianotipiaren teknika gehitzen die; hura erabiltzen du irudiak, eguzkiaren argia, agerrarazteko.

Pieza horiek bat datoz huts-sentsazioa proiektatzeko orduan. Eta hura, zehazki, beste gizaki bat amaten ari diren subjektu gisa identifikatzeko eztabaida pertsonalekin lotu daiteke. Gorputz baten eta bestearen arteko mugak birkokatze beharizanak, norberari eta zaintzen duenari edo zaindua denari eusteko ideiak sentsazio nahasiak sortzen ditu norberaren irudiaren inguruan. Hura hala egiazta daiteke **Beruta (Berta Osés) (Des)equilibrada** lanean, ispilu batean islatutako irudi baten oreka ezegonkoraren bidez, nola esferaren serieko bertako marrazkietan, non **Angela Morenok** bihotzaren sinboloa tartean sartzen baitu, arrosa-landarearen arantzen bidez; hartara, haiek sortzen dituzten itzalak kamuflatzen dira, eta artistak marrazkiaren bidez finkatu dituen beste batzuekin nahasten dira, amarru gisara. Bertan agertzen da, behin baino ez, gorputz umedun bati eginiko zuzeneko erreferentzia, baina, batik bat, ama sinbolikoa eta irudi horrek eragiten dituen prozesu konplexuak intsinnatzen.

Ikuspegia, existentziaren beraren ikuspuntu argia galtzea ziurrenik areagotu egiten da heriotzaren eta memoriaren misterioari buruzko galderak irekitzean.

Oihane McGuinness Armendáriz-ek, *Ni bestea naiz* eta *Mesa de trabajo* lanetan, bere familia-testuinguruaren ondoriozko argazki-materialen bilketa dakar, haiek bildu eta gainjartzeko, lehendabizi. Irudien karga emozionalari aurre egitean, erretratututako subjektuak ateratzea erabakitzen du, eta, hala, enkoadraketetan hutsune bat sortzea. Hartara, argazki-artxiboaren berezko zentzua eratu eta, aldi berean, deseraikitzen du, beste berri eta pertsonal bat eratzeko, euskarrien beren memoriaren inguruan eta familia-historien berezko hutsuneak areagotuz, besteak beste, zaintza-sareak eta iraganeke afektuak.



OIHANE MCGUINNESS ARMENDÁRIZ

Ni bestea naiz

Argazkiek iraun egiten dute eta, denborak iragatearen eta heriotzaren ondorioz, galdu diren harreman batzuk zabaltzen dituzte. Hala ere, argazki-erregistroaren beraren agentzia –baita ikus-entzunezkoarena ere– egiaztatzen da *Beruta* (Berta Osés) *Abrigo* eta *Agur, mi reina*. *Duelo en dos actos* piezetan; zenbait urtez egunero harekin izan zen animalari agur egiten dio, erritu partikular batean, ohiko fereken bidez eta, azkenean, hil-jantzi baten funtzioa betetzen duen oihal batean prestatuz. Hemen posible da pentsatzea gorputzaren memorian, ferekatzeko moduetan; haiek ez dizkigute irakasten, baizik eta kontaktu fisikoaren esperientziaren bidez ikasten dira. Nola eta noiz ikasten dugu amaten?

Maitasuna, samurtasuna eta kontaktua funtsezkoak dira amatzean, bai eta –eta, beharbada, gehiago– antolatutako hitzik ez dutenean ere.

zaintzea



ANGELA MORENO

Natureza tejida hecha de silencio / Baztan en invierno y otoño

Angela Morenok, *Baztan en invierno y otoño* piezan, bisitatu ohi diren lekuak ere ekartzen ditu gogora; hala, argazkiak ateratzen dizkie eta modu apartan prestatutako euskarri batera daramatza. Haien distirajokoek eta opakutasunek nolabaiteko melankoliarekin konektatzen dute. Irudi horren gainean, hari metalikoen bidez hark eratzen duen oihal bat gainjartzen du *–La niña que habita en mí* piezan grafikatu bezala–, eta, hala, amonarengandik ikasitako ereduak errepikatzen ditu, baina apaindura-formak ehuntzeko helburua barne hartu gabe, baizik eta “egiteagatik egitea” ordeztuz eta denboraren ekoizpen-neurriak azpiko gora jarriz. Helburu zehatz bat desegitea eta, horretarako, aurretiaz diseinatutako helmuga baterantz aurrera egitea denboraren kontzepzioarekin amaitzeko modu bat da, eta, arte-jardunbideetan ere, hura, askotan, lan-corpus bat

eratzeko exijentzia gisa jotzen da.

Denbora erakusketa honetan parte hartzen duten emakumezko artista guztien interesetan dago presente, baina are nabarmenagoa da memoriari heltzean, batik bat zaindu diren edo zaindu duten hurbileko pertsonen heriotzari edo galerari lotua.

Horren guztiaren adibide gisa, McGuinness Armendáriz-ek, *Zozoak Beleari* lanean, aurretik aipatutako argazki-eraketa hustuaren ariketa berreskuratu eta beste esanahi-maila bat gehitu dio, mugimenduaren eta espazioko argiaren bidez. Nolabait, erakusketa-gelako proiektzioa beste denbora eta espazio batzuetako irudiak orainera ekartzeko keinu bat da, berean ere tartean sartuta. Beharbada, material horiek biziberritzeko grina dago, iraganaren eta orainaren eta espazioen eta denboren



katzea



OIHANE MCGUINNESS ARMENDÁRIZ

Zozoak Beleari

arteko harremanak desegingo dituen estentsiorako grina. Lan honen materialak ohikoak bezain ezegonkorak dira; plastikozko brida batzuez lotutako metalak akzioan dauden irudietara darama arreta. Lausodurak argitzen saiatzera garamatza, argazki osagabeetako oroitzapen batzuen atzean dauden historia afektiboak asmatzen saiatzera. Memoriaren eguneratzea hura ferekatzeko modu bat ote da?

Modu horretan pentsa dezakegu *Zarys Falconen Maeternidad* soinu-pieza performatiboa; bere estimulua gonbidapen honen aurrean izan da bere antzinako memoria berreskuratzea, bera zaindu zuten emakumeei eta kantua ageri zen zenbait uneri lotua, eta, horrela, berak oso goizetik hasitako ikerriltoa mugatu du. Oroitzapen emotiboetan bilatzean, amonaren otoitzarekin konektatzen du, ahotsaren eta arrosario-

bihiak ukitzen doazen atzamarren erlazioaren bidez. Gorputzeko organoen zirkulazio erritmikoa, mihia zein atzamarrak izan, amaierarik gabeko kiribil bilakatzen da, denboraren ezegonkortzearekin lotuta dagoen kiribila –berriro ere–, erritualari, zaintzei eta afektuei lotutako denbora-espazio bat sortzeko. Artistak memoria horren zenbait elementu jasotzen ditu bere gorputzean jartzeko, berak eremu gisa ulertzen duen horretan, bere identitatearen hainbat eta hainbat dimentsio batu eta, hala, etengabe garatzen ari den hibridazioa sortzen doan horretan.

Otoitza, lo-kanta eraldatuta, urrumatu eta lagundu egiten duen abesti eta babesten eta hunkitzen duten soinu eraldatuta; soinu-ekintza horretan lagun dauzkanengan eragina duen, eta haren irismen pertsonal eta kolektiboak susmagaitzak dira.



©
AMAIA GRACIA AZQUETA
Vestir



Beste hurbilketa bat: topaketa gardentzea

Erakusketetako komisariotza-lanari dagokionez, Lucy Lippard-ek¹³ Hans Ulrich Obrist-ekin¹⁴ izandako elkarrizketa batean kontatu zuenez, gehiago ikasi zuen artistekin izan zituen elkarrizketetan, Artearen Historiako graduondoko ikasketetan edo MoMA museoko lanean baino. Uste horrekin identifikatuta sentitzen naiz; izan ere, gaiaren inguruko bibliografia zabala berrikusi ondoren, hurbilketa nabariena artisten ekoizpenen ezagutzatik abiatuta eginikoa izan da. Hona, era berean, haietako bakoitzarekin izan nuen topaketa ekarri nahi dut; haien estudioetan hartu ninduten, eta elkar ulertu genuen eta zenbait ikuspegi eta esperientzia partekatu genituen. Interesgarria izan zen haietako gehienak ez zirela ama biologikoak eta, hala ere, proiektuan inplikatu


ahal izan zirela, distantziarik gabe.

Haien estudioetara eginiko bisita bakoitzean, areagotzen joaten ziren interpretazio-mailak, eta artisten mundu-ikuskerak elkarri lotzen zihozen; sumatzen zen, beraz, elkar-ulertzea zegoela amatasunaren jardunbidearen inguruan, ikuspegi estetiko-afektibotik.

Haien artean metatzen zihozen baterako keinu batzuk nabaritzen nituen, pixkanaka. Nahiz eta taldea belaunaldi desberdinetakoak izan (1960aren eta 1994aren artean jaiotakoak), objektuekin harremanetan jarduteko zeuzkaten moduek txunditu egiten ninduten, gaiarekin zegoen sintoniagatik, eta horri buruzko testu labur bat idaztera bultzatu ninduen horrek guztiak:

13 New Yorken jaio zen, 1937an. Arte-kritikaria, idazlea eta teoriko feminista.

14 Obrist, Hans Ulrich. Breve historia del comisariado. (Madril: Exit, 2010).



Eskuak atzetik uztartzen ditut, ukitzea eta behatzea eragozteko paperak kentzen dituzten bitartean, luma ahulak balira bezala, ebaketa industrialen ondoriozko bizarretatik hatz-mamiak pasatu edo haien ehunen pisuari eutsi bitartean.

Beste behin ere masajeatzen dituzte azalera hotzak, hainbeste aldiz ukitu dituztenak, baina orain haien espazio pribatura gonbidatutako baten aurrean. Ez dago ez keinu zakarrrik ez traketsik. Ezer ez da erortzen, denari eusten zaio. Begi sutsuekin berrikusten dituzte dirdirak eta opakutasunak. Berezko erritmoaz mugitzen dira. Ferekatu egiten dute. Ferekatu, ia urrumatu. Gorputzek espazioan egiten dituzten soinua xurgatzen dituzte. Ezagutu egiten dituzte. Haien piezak karpetatan, kutxatxotan, oihaletan, paperetan, kaxoitari, apaletan eta kalte ororen aurrean babesten dituzten elementu batzuetan estaltzen dituzte berriro. Zaindu egiten dituzte. aBesarkatu egiten dituzte, antolatzen dituzten bitartean. Noiz sortu ziren ukitzeko eta eusteko modu horiek? Denborak keinuak lotzen ditu elkarrekin, eta materia eskuek eraldatzen dute, eskuekin eraldatzen da. Badirudi eskuak beti direla berak. Gorputz guztiok amatzen dugu.

Angela Morenok denboraren zatiketaz azaldutako ideiak biltzen ditut, Amaia Gracia Azqueta azaldutako amaren gorputzetik bertatik eginiko berrasmatze sortzailearen ideia, Beruta (Berta Osés) minuskulua denaz egiten duen aldarrikapena, Marisa Mantxolaren integrazioa eta sintesia, Oihane McGuinness Armendáriz-ek batzen dituen ausardia-jarrera eta sentsibilitatea, Txaro Fontalbareneko esperimendazio pozgarria, eta Zarys Falconen ahotsaren aukeren bilaketa iraunkorra.

Ez da ahaztu behar artista horiek haien lana egiteko daukaten ingurunea kontra dutela, erabat; izan ere, ezegonkortasuna –denbora eta ekonomia aldetik– estrategia bitalista edo mikropolitika aktibo batzuen bidez saihesten dute, eta bilakaeran eta mugimenduan mantentzen dira, prozesuan dauden subjektu gisa¹⁵, Suely Rolnik filosofo brasildarraren pentsamenduarekin bat etorritik.

Arte-jardunbideekin jarraitzeko ekinak izateak, funtsean, lanaren feminizazioaren nozio hegemonikoarekiko erresistentzia gisa ulertzen dut, lan horren barruan artearen esfera ere sartzen dela kontuan hartuta. Eremita-estuinguru horretan gaur egun emakume artista izateak eustera eta irautera bultzatzen du; hala, amatasun-jardunbidea artearenarekin konbinatzen dute, "gorputzaren-jakintza"ren birjabetzetik.

¹⁵ Rolnik, Suely. Esferas de la insurrección. Apuntes para descolonizar el inconsciente. (Buenos Aires: Tinta Limón, 2019) 53-58.

AMAIA GRACIA AZQUETA

Irúñean jaio nintzen 1985ean. Bilbon bizi eta lan egiten dut 20 urte nituenetik. Arte Ederretan lizentziatua; Artean lkerketa eta Sorkuntza Masterra; eta Marketin eta Merkataritza Zuzendaritza Masterra UPV/EHU.

Artista bisual gisa eskulturatik lan egiten dut, marrazkia eta argazki-irudia erabiliz. Alderdi autobiografikotik abiatuta, arazo unibertsalak planteatzen ditut, arlo politikotik eta pertsonaletik abiatuta. Lurralde, identitatea eta afektuak landu ditut, material eta sormen prozesuan interesatuta. Nire lehen amatasunetik, denboraren, erresistentziaren, abiaduraren eta iraunkortasunaren nozioei buruz ikertzen dut.

Guggenheim Museoa eta Bilboko Rekalde Aretoa, Huescako CDAnen, Uharteko Zentroan eta Irúñeko Zitudelara, besteak beste, nire lana erakutsi dut.

ANGELA MORENO

Arte Ederretan lizentziatu nintzen, UPV/EHU (1986), grabatu espezialitatean. 1996tik Uharteko Zubiarte grabatu tailerra zuzentzen dut, eta bertan irakaskuntza eta sorkuntza uztartzen ditut.

Duela gutxi, "Hamalau gehiago" (2020) erakusketa kolektiboan parte hartu dut, Nafarroako Museoak erositako *Cuando los sueños van a los ojos y susurrar caricias de mar agitados* piezarekin. 2022an, Irúñeko Espacio Apaindu aretoa, memoria, isiltasuna eta natura lotzen dituzten piezak erakutsi nituen, formatu berriein egindako esperimentazioan oinarrituta, marrazkiarekin eta grabatuarekin uztartzen diren zilarrezko hariak erabiliz.

Ehunaren teknika tradizionalak berreskuratzen ditut, nire bizitzan garrantzitsuak diren emakumeei

buruz hitz egin ahal izateko eta, era berean, eskuzko lanak balioetsi eta aldarrikatzeko.

BERUTA (BERTA OSÉS)

Irúñean jaio nintzen 1975eko urrian.

Oihalak maite ditut arrazoimena erabili baino askoz lehenago. Amatxok hala kontatzen du. Eta garai batetik hona hariak ere maite ditut. Haiekin hitz egiten dut identitateaz, bakardadeaz edo feminitateaz. Antasiaren eta errealtatearen, txikiaren eta handiaren, kanpoko munduaren eta barrukoaren arteko mugei buruzko galderak egiten dizkidate.

Ehunekin elkarrizketa intimoa, luzea, sakona eta ukimen sentzazioz bete da. Pieza azaletik eraikitzen da, eta hori, lagunok, zoragarria da. Laztan bakoitzak ezkutukoa argitzea bilatzen du, puntada bakoitza, tartean dagoen zuntzaren izaera errespetatzea. Eta nik, nirearekin adiskidetuko nauten munduak aurkitzea. Eta dena EMAKUME HAJE! esker.

OIHANE MCGUINNESS ARMENDÁRIZ

Arte Ederretan lizentziatua UPV/EHU, eta Praktika Artistikoak eta Ikasketa Kulturalak masterra NUPen (2021).

Absentziaz betetako objektuak eta argazkiak dira? Presente egin?

Harritu eta beldurtu egiten naiz, eta nik galdetzen diot:

"Hura zu edo ni"

Nire ustez nor naizen eta zer naizen galdetzeko moduek salatzen gaituzte.

"Es un primer plano, una decapitación."

(Garro, Oihana, Stereo, 2017, 129)

Amonari begira egoten naiz, boligrafo gorri batekin aitonaren errauts-ontzia koloretzatzen, sosa zela esanez. Asko

gustatzen zait. Denborarekin zerikusia duela uste dut.

Sinestea,

Zerbaitetan sinestea,

Edo besterik gabe egin, sinistu edo ez.

Agian ez naiz ni, baina batzuetan bestea naiz, hainbeste non haiek gabe ez

TXARO FONTALBA

1988an Arte Ederretan lizentziatu nintzen, eskultura espezialitatean, UPV/EHU. Ondoren, Londresen eskultura graduondoko bat egin nuen eta Artelekuko tailerretan parte hartu nuen.

Subjektibotasun femeninoak eta genero-kontuek zeharkatzen dute nire lana, maitasunaren imajinarioa, hezkuntza sentimentala, plazer femeninoa edo amatasunarekin lotutako figurak bezalako gaien bitartez, femininotasunaren topikoak, rolak eta arketipoak zapuztuz.

Gorputzaren ideia, entitate sexuatu gisa, errepikakorra da. Gorputza-objektua, gorputza-lengoaia, gorputz organoak objektu bihurtuz, zeinak, aldi berean, edukiontzi politikoak baitira.

Nire azken proiektuen artean, honako hauek nabarmentzen dira: "Clitoria" (2019) erakusketa Iruñeko Apaindu Espazioan; Uharte Zentroko egonaldia (2020) *Las maquinistas* proiektuarekin; eta *Sueñario* (2021) ekintza plastikoa, Nafarroako Museoa.

ZARYS FALCON

Musikaria eta Arte Eszenikoetan lizentziatua Cartagenan, Kolonbian (2009). Nire ikerketa- eta sorkuntza-bidea ahotsetik eraiki dut dimentsio anitzeko egitate gisa, bizi estetikoak, sozio-politikoak, emozional-afektiboak eta bizi dudan misterioa ehuntzen dituenak.

libilera horretatik, praktika artistikoak aukera eman dit migrazio-oztopoak hausteko eta Ingalaterran, Jamaikan, Frantzia, Alemanian, Italian eta Espainian aurkezteko, ahotsari helduz kide-lurralde, pertsonal eta kolektibo gisa; soinu- eta mugimendu-fluxu gisa; emozio, energia eta errealitate gisa, non esperimentatu dudana posiblearen izaera barneratuta dagoela berezitasuna uhinkeria, eraldaketa gisa onartzean.

2019tik Iruñean bizi naiz, eta han Katanga Dub kolektiboa sortu dut.


MARISA MANTXOLA

Donostian jaio nintzen 1967an, eta gaur egun Iruñean bizi naiz. Arte Ederretan lizentziatua naiz diseinuko espezialitatean, artista bisuala eta diseinatzaile independentea.


Nire praktikan, esku- eta teknologia-prozedurak sintetizatzen dira arruntetik eta egunerokotik datozen elementuen eta/edo pertsonen arteko fikziozko harremanak erakusteko, eta hainbat jatorritako argazkiekin egindako collage eta fotomuntaketen bidez egiten dut: bilduma pertsonala, webgunea edo berariak sortutako artxiboak.

Iraganean hanka bat daukat (fotonobeekin eta tebeoekin hazi nintzen) eta beste bat aro teknologikoan; beraz, proposamen guztietan aurrez aurre jartzen ditut ordenagailuak ematen dituen tresnekin artisauek egiteko moduak.









ANGELA MORENO

La niña que habita en mí III










OIHANE MCGUINNESS ARMENDÁRIZ
Ni bestea naiz



©
ZARYS FALCON
M-a-e-t-e-r-n-i-d-a-d